Energia Leihatila Bakarra Sakana-Mendialdean

Zure energia-faktura murriztu, etxebizitza hobetu edo energia-komunitate batean parte hartu nahi duzu?

Energiaren Leihatila Bakarra Nasuvinsaren doako zerbitzua da. Energia-kontsumoa murrizten, etxebizitza hobetzen, diru-laguntzak ezagutzen eta zure udalerrian energia berriztagarrien ekimenetan parte hartzen laguntzen dizu.

Zerbitzu hau Nafarroako Gobernuak, Sakanako Mankomunitateak eta eskualdeko udalek sustatutako ekimena da.

Norentzat da?

- Herritarrak
- Tokiko ekimenak sustatzen dituzten taldeak
- Energia-komunitateak
- Toki-erakundeak
- ETEak
- Etxebizitzaren jabeak eta jabekideen komunitateak

Zertan lagun zaitzakegu?

- Energia-aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa
- Energia berriztagarriak
- Energia-komunitateak
- Mugikortasun jasangarria
- Bonu sozial elektriko eta termikoa

Lurraldeari lotutako zerbitzu hurbila

Energia-kontsumoa murrizten, etxebizitza hobetzen eta energia berriztagarrien herriko proiektuetan parte hartzen laguntzen dizugu.

Lagunduko dizugu:

- Komunitate energetiko bat sortzeko eta haren parte izateko informazioa jasotzea.
- Komunitate energetikoaren bitartez proiektuak bultzatzea.
- Zure energia-faktura ulertzea.
- Etxebizitza eta eraikinen energia-kontsumoa murriztea.
- Zure etxeko erosotasuna eta eraginkortasuna hobetzea.
- Mugikortasun jasangarriagorako aukerak ezagutzea.
- Bonu elektrikoa eta termikoa tramitatzeko laguntza.

Hainbat arlotan eskaitzen dugu laguntza:

- Teknikoa: jardun eta irtenbide posibleak.
- Juridikoa: arau eta administrazio-alderdiak.
- Ekonomiko-finantzarioa: laguntzak, dirulaguntzak eta finantzaketa.
- Soziala eta antolamendukoa: parte-hartze prozesuetarako eta erabakiak hartzeko laguntza.

Bultzada eta laguntza prozesu osoan zehar

Laguntza osoa, informazioko eta sentsibilizazioko hasierako faseetatik jarduketa amaitu arte, hala nola:

Energia-komunitateak sortzeko eta haiek aholkatzeko ekimenak

*Zer da **energia-komunitate** bat?*

Energia-komunitatea antolatzeko modu bat da, non pertsonak batu egiten diren energia berriztagarria modu lokalean, partekatuan eta iraunkorrean ekoizteko, kudeatzeko eta kontsumitzeko. Bere indarra parte-hartzean dago: kide bakoitzak ekarpen, erabaki eta onura ateratzen du, eredu justuagoa eta lurraldearekin lotuagoa sortuz.

Energia-komunitate bat sortu nahi baduzu edo dagoeneko komunitate baten parte bazara, prozesuaren fase guztietan lagunduko dizuegu. Aholkularitza haien beharretara eta garapen-mailara egokituz, honako ekintza hauetan, adibidez:

- Eratze-prozesuak.
- Beharrak identifikatzea.
- Garapen iraunkorreko proiektuak sustatzea, dinamizatzea eta kudeatzea.
- Proiektuen bideragarritasuna, abian jartzea eta funtzionamendua aztertzea.



1. argazkia. Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa Irurtzungo musika eskolan, udal eraikin publikoei eta parte hartzen duten bizilagunei energia berriztagarriz hornitzen dituena.

Kontsultatu mapa *eta ikusi zure udalerrian energia-komunitaterik badagoen.*

Etzebizitza eta eraikinen birgaitze energetikorako ekimenak

Eraikin komunitarioak edo familia bakarreko etxebizitzak birgaitzeko prozesuei laguntza ematen diegu:

- Inguratzaile termikoa, osoa edo partziala hobetzea.
- Oztopo arkitektonikoak kentzea eta irisgarritasuna hobetzea.
- Instalazio termikoak berritzea.

Jarduketa horiei esker, etxebizitza erosoagoak, irisgarriagoak eta eraginkorragoak izango dira, eta, gainera, energía-kontsumoa murriztuko da.



2. argazkia. Itxesiko (Uharte Arakil) inguratzaile termikoa birgaitzea

Kontaktu

Jarri harremanetan **Energia Leihatila Bakarrarekin** eta jaso ezazu aholkularitza doakoa eta pertsonalizatua, Sakana Mankomunitatean (Uriz kalea 32, Lakuntza). Jar zaitez harremanetan zure udalarekin, zer zerbitzu erabil ditzakezun jakiteko.

Hitzordua eskatu:

OTC Navarra:

- https://otcnavarra.es/
- Kontaktua: Ane Galarza Izagirre

  agalarzi@nasuvinsa.es

  Telefonoa: 619 523 169

ELENA Taldea:

- https://www.nasuvinsa.es/es/servicios/rehabilitacion-regeneracion
- Kontaktua: Osane Pozueta López de Zubiria

  opozuetl@nasuvinsa.es

  Telefonoa: 686 618 911